

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

**FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA**

2. modulua: **Produktu Mekanikoen Diseinua**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

2. modulua: **Produktu Mekanikoen Diseinua**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net


Egilea: Joaquín Fernández Uribe

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-2515/2010



Orduak: 297
Unitate kopurua: 15

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzeraz eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ET A D ENBORALIZAZIOA	04. or.
U	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or.
1	1. unitate didaktikoa: Makinetako esfortzu- eta higidura-transmisioa aztertzea	08. or.
2	2. unitate didaktikoa: Makinen elementuak eta fabrikazio-prozesuak aztertzea	12. or.
3	3. unitate didaktikoa: Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren metal eta aleazio nagusiak aztertzea	15. or.
4	4. unitate didaktikoa: Fabrikazio mekanikoan gehien erabiltzen diren polimeroak eta material konposatuak aztertzea	21. or.
5	5. unitate didaktikoa: Trakzioari, konpresioari eta ebakidurari buruzko oinarriko kontzeptuak	24. or.
6	6. unitate didaktikoa: Makurduaren eraginpean jarritako elementuak aztertu eta kalkulatzeko	28. or.
7	7. unitate didaktikoa: Bihurduraren eraginpean jarritako elementuak aztertzea. Malgukiak. Tentsioen metaketa. Nekea	31. or.
8	8. unitate didaktikoa: Euste-elementuak aztertzea: torlojuak, larakoak	34. or.
9	9. unitate didaktikoa: Potentzia transmititzeko elementuak kalkulatzeko: ardatzak, poleak eta uhalak, kateak	37. or.
10	10. unitate didaktikoa: Elementuak gidatu eta berrmatzeko sistemak aztertzea	41. or.
11	11. unitate didaktikoa: Engranajeak aztertu eta kalkulatzeko	45. or.
12	12. unitate didaktikoa: Akoplamenduak, lozagiek eta balaztak aztertzea	50. or.
13	13. unitate didaktikoa: Ahokadurak eta perdoiak kalkulatzeko. Kalitateak	54. or.
14	14. unitate didaktikoa: Elementu mekanikoak diseinatu eta proiektatzeko	57. or.
15	15. unitate didaktikoa: Kalitatea fabrikazio mekanikoko diseinuan	61. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK					UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5		
					UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X					UD1: Makinetako esfortzu- eta higidura-transmisioa aztertzea.	17 h
X					UD2: Makinen elementuak eta fabrikazio-prozesuak aztertzea.	24 h
		X			UD3: Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren metal eta aleazio nagusiak aztertzea.	36 h
		X			UD4: Fabrikazio mekanikoan gehien erabiltzen diren polimeroak eta material konposatuak aztertzea.	9 h
			X		UD5: Trakzioari, konpresioari eta ebakidurari buruzko oinarriko kontzeptuak.	24 h
			X		UD6: Makurduraren eraginpean jarritako elementuak aztertu eta kalkulatzeko.	18 h
		X	X		UD7: Bihurduraren eraginpean jarritako elementuak aztertzea. Malgukiak. Tentsioen metaketa. Nekea.	15 h
		X	X		UD8: Euste-elementuak aztertzea: torlojuak, larakoak.	7 h
		X	X		UD9: Potentzia transmititzeko elementuak kalkulatzeko: ardatzak, poleak eta uhalak, kateak.	23 h
		X	X		UD10: Elementuak gidatu eta bermatzeko sistemak aztertzea.	15 h
		X	X		UD11: Engranajeak aztertu eta kalkulatzeko.	30 h
		X	X		UD12: Akoplamenduak, lozagiak eta balaztak aztertzea.	12 h
	X				UD13: Ahokadurak eta perdoiak kalkulatzeko. Kalitateak.	15 h
	X				UD14: Elementu mekanikoak diseinatu eta proiektatzeko.	27 h
	X			X	UD15: Kalitatea fabrikazio mekanikoko diseinuan.	24 h
GUZTIRA						297 ordu

1. multzoa: Makinen elementuak hautatzea.
2. multzoa: Produktu mekanikoak diseinatzea.
3. multzoa: Materialak hautatzea.
4. multzoa: Elementuak eta tresnak dimentsionatzea.
5. multzoa: Elementuen, tresnen eta mekanismoen diseinua egiaztatzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENEA						Iraupena: 1 ordu				
Ikaskuntzaren helburuak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldekideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluren unitate didaktikoen arteko eta moduluren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 										
EDUKIAK						Multzoak				
						1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 									
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 									
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 									
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
			Ir.	Ik.						
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 min	x	x	Irakasleak eta ikasleak nor bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea	Ez da bitarteko berezirik behar.			



						denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	
J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> - Arbela. - PowerPoint-en egindako aurkezpena edo antzekoa. - Kronogramak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzen identifikazioa.	5	30 min	x	x	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den. • J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko. • Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. 							



1. unitate didaktikoa: MAKINETAKO ESFORTZU ETA HIGIDURA TRANSMISIOA AZTERTZEA

Iraupena: 20 ordu

IE1: Sistema mekanikoetan eta fabrikazio-prozesuetan erabiltzen diren elementuak, tresnak eta mekanismoak hautatzen ditu, horien funtzionaltasuna eta portaera aztertu ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Sistema mekanikoetan erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea.
2. Mekanismoak zerrendatzea horiek sortzen duten mugimenduaren transformazioak kontuan izanda.
3. Transmisio-organoak eta horiek kate zinematikoetan betetzen duten funtzioa identifikatzea.
4. Makinen elementuak horiek betetzen duten funtzioarekin lotzea.

EDUKIAK					Multzoak				
					1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Mekanismo-sistemen, makinaren elementu mekanikoen, eta mugimenduak transmititu eta transformatzeko organoen funtzionaltasuna identifikatu eta aztertzea. Ardatzei eta gidatze-sistemei eusteko elementuak. Makinen kate zinematikoak aztertzea. Oinarrizko kateen parametro zinematikoak kalkulatzeko (irteerako abiadura, ebaketa-abiadura eta birak, aitzinamenduak). 				X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Mekanismoak (espekak, torlojuak eta engranaje-trenak, besteak beste). Mugimenduak (lerradurakoak, errodadurakoak eta birakariak, besteak beste). Mugimenduen transformazioa. Kate zinematikoak. 				X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Makinen eta horien funtzionamenduaren ikuspegi orokorra izateko interesa. 				X				
JARDUERA			METODOLOGIA			BALIABIDEAK			
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den		
			Ir.	Ik.					
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da.	Gainerako moduluekiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Ikasleak aldeztatik jarrera egokia hartzeko, garatu beharreko lan motarekiko.	OCDa.		



J1. Aurkezpen orokorra, makina-erreminta konbentzionalari buruzkoa.	1, 2, 3.	3 h	X		Irakasleak fabrikazio mekanikoko industrian gehien erabiltzen den makineria, eta haren erabilera eta aplikazio nagusiak deskribatuko ditu. Era berean, makina-erreminten ezaugarri funtzionalak azalduko ditu.	Elementu mekanikoak fabrikatzeko metodoak ezagutzeko.	Arbela. Irudi-proiektagailua.
J2. Azalpena, makina-erreminta konbentzionalen elementu nagusiei buruzkoa.	1, 2, 3.	2 h	X		Irakasleak makineria horren osagaiak azalduko ditu, bai eta elementu horien laneko modua, eta transmititzen dituzten eta jasaten dituzten esfortzuak ere. Irakasleak deskribatutako elementuek erabiltzen dituzten euskarriak azalduko ditu.	Makineria konbentzionalaren oinarriko elementuak ezagutzeko, horiek jasaten dituzten esfortzuak bereizten jakiteko eta makinaren organoei buruzko hasierako kontzeptuak ikasteko.	Arbela. Irudi-proiektagailua.
J3. Azalpena eta analisi orokorra, higiduraren mekanismoei eta transformazioari buruzkoak. J3.1. Makinen zinematikari buruzko oinarriko ariketak egitea.	1, 2, 3.	2,5 h 2,5 h	X X		Irakasleak makina nagusien funtzionamendua, mekanismoak eta sortzen diren higidura-transformazioak azalduko ditu. Fabrikazio mekanikoaren esparruan erabiltzen diren unitateei buruzko azalpen bat egin ondoren, mekanikaren inguruko oinarriko kontzeptuak aurretiaz deskribatutako makinaren mekanismo sinpleenekin lotuko ditu. Ondoren, makina-erremintentzat beharrezkoa den potentzia azalduko du.	Mekanikaren inguruko oinarriko ezagupenak lotzeko horiek makina-erremintan dituzten aplikazioekin, eta makina-erremintaren elementu nagusiak ezagutzeko. Aurreko kurtsoetan ikasitako formulak zerrendatu eta ulertzeko, eta mekanismoen kasuan duten aplikazioa ezagutzeko.	Arbela. Irudi-proiektagailua. Lantegi mekanikoko makineria.
J4. Azalpena, makina-erremintako higidurei buruzkoa.	1, 2, 3.	2 h	X		Irakasleak makinaren organoen higidurari buruzko azterketarako sarrera azalduko die ikasleei.	Ulertzeko makinetan zein higidura izaten diren, nola sortzen diren, zein transformazio gertatzen diren, eta zein	Arbela. Irudi-proiektagailua.



J4.1-E2. Kate zinematikoei eta parametroen kalkuluari buruzko ariketak egitea.		4 h	X	X	Torlojuen, espeken eta engranaje-trenen funtzionamendua deskribatuko du, eta kate zinematikoen parametroak azalduko ditu. Irakasleak banakako praktikarako ariketak proposatuko ditu. Horietan, parametroak kalkulatzeko zinematikaren kontzeptuak azalduko dira.	azken parametro neurtu eta erabili nahi diren. Higidura linealak eta zirkularrak kalkulatzeko, eta horien arteko lotura ezagutzeko gaitasunak garatzeko. Mekanismoak eta higidurak elkarrekin lotzeko. Ebaketa-parametroen inguruko kalkuluak ikasteko.	
J5. Lantegia bisitatzeta eta makina-erreminta nagusien mekanismoek duten funtzionamendua deskribatzea.	1, 2, 3	2 h	X	X	Lantegiko bisitan, irakasleak, makineria konbentzionala baliatuta, makinek higidura-transformazioetarako erabiltzen dituzten mekanismoak deskribatuko ditu.	Makinen mekanismoetan higidurak bistaratzeko gaitasunak garatzeko. Aurreko jardueretan ikasitako kontzeptuak egunero erabiltzen diren makinetan nola aplikatzen diren ikusteko. Zenbait makinatan higidura transmititzeko organoak ikusteko. J3 eta J4 jardueretan emandako azalpenak ulertzen laguntzeko.	
E3. Berariazko ebaluazio-jarduera.	1, 2, 3.	1,5 h	X	X	Proba praktikoa baten bitartez, irakasteko eta ikasteko prozesuan erdietsi diren lorpenak ebaluatu nahi dira.	Ikasteko prozesua ebaluatzeko.	Proba praktikoa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> J5 jardueran, irakasleak sarrera bat egin dezake segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauen inguruan, eta kutsadura ahalik eta gehien murriztu eta ingurumena babestu ahal izateko lantegi bat kudeatzeko moduaren inguruan. Gai hori UD15ean garatuko da ondoren. 							



2. unitate didaktikoa: MAKINEN ELEMENTUAK ETA FABRIKAZIO PROZESUAK AZTERTZEA

Iraupena: 21 ordu

IE1: Sistema mekanikoetan eta fabrikazio-prozesuetan erabiltzen diren elementuak, tresnak eta mekanismoak hautatzen ditu, horien funtzionaltasuna eta portaera aztertu ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Sistema mekanikoetan erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea.
2. Piezak mekanizatzeko tresneria-soluzioak identifikatzea.
3. Mekanizazioko tresnak diseinatzeko erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea.
4. Lubrifikazioak elementuen eta organoen portaeran dituen ondorioak ulertzea.

EDUKIAK					Multzoak					
					1	2	3	4	5	
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazioan gehien erabiltzen diren tresnen funtzionaltasuna identifikatu eta aztertzea. • Lubrifikatzaileen eta lubrifikazio-sistemen motak identifikatzea. • Lubrifikazioak makinaren sistema mekanikoen eta elementuen portaeran duten eragina aztertzea. 				X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema eta elementu mekanikoak (merkataritzakoak eta merkataritzaz kanpokoak). Tipologia eta ezaugarriak. • Ardatzei eta gidatze-sistemei eusteko elementuak. Tipologia eta ezaugarriak. • Mekanizazioarako tresnak. • Lubrifikazioa eta lubrifikatzaileak. 				X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Makinen eta horien funtzionamenduaren ikuspegi orokorra izateko interesa. 				X					
JARDUERA				METODOLOGIA			BALIABIDEAK			
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
			Ir.	Ik.						
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko da, eta modulua	Moduluaren gainerako UDekiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Ikasleak alde aurretik jarrera egokia	OCDa.			



					osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da.	hartzeko, garatu beharreko lan motarekiko.	
J1. Azalpena, tresnei, euskarriei, erreferentziei eta lokailuei buruzkoa.	1, 2, 3	3,5 h	X	X	Irakasleak azalpen bat egingo du fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren tresnen eta horiek fabrikatzeko erabiltzen diren materialen inguruan. Era berean, erremintak eta piezak lan-prozesurako behar bezala posizionatu, lotu eta gidatzeko beharra aztertuko du. Erremintak eta mekanizatu beharreko piezak lotzeko erak deskribatuko ditu.	Elementu horien garrantzia ulertzeko, eta erreminten eta mekanizatu beharreko materialen sarbidea diseinatzeko garaian eskakizunak zein diren jakiteko.	Irakaslearen apunteak. Bibliografia. Industria-katalogoak. Internet.
J1.1. Azalpena, erabiltzen diren tresnei buruzkoa.		4 h	X	X	Industria-katalogoak eta Internet erabilia, irakasleak ikasleak gidatuko ditu tresnak normalizatuak, eta horien ezaugarriak eta aplikazioak identifikatzen.	Enpresek eskaintzen dituzten tren normalizatuen aukera ezagutzeko.	
J2. Azalpena, marruskadurari eta higadurari buruzkoa.	4	1 h	X		Irakasleak euren artean higadura erlatiboa duten elementu mekanikoen arteko ukipen-baldintzak, baldintza txarretan izaten den higadura eta narriadura murrizteko era azalduko ditu.	Euren gainazalen arteko marruskaduraren ondorioz elementu mekanikoak nola narriatzen diren ulertzeko.	Irakaslearen apunteak. Bibliografia. Industria-katalogoak. Internet.
J2.1. Azalpena, lubrifikatzaileei, propietateei, saiakuntzei, gehigarriei eta lubrifikazio-sistemei buruzkoa.		5 h	X		Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren lubrifikatzaileak, eta horien propietateak eta erabilera-baldintzak azalduko ditu. Irakasleak produktu horien erabilera egokia, eta olioak eta taladrinak birziklatzeko dagoen araudia nabarmenduko ditu.	Ezagutzeko fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren lubrifikatzaileak, horien propietateak eta, lubrifikatzaileak eta taladrinak birziklatzearekin lotuta, ingurumena babesteko araudia.	



J3. Banakako lanak egitea, fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren lubrifikatzaileei buruzko informazioa bilatzeko.	4	2 h	X	X	Ikasle bakoitzak lan bana egingo du apunteak, liburuak, katalogoak eta Internet baliatuta, lubrifikatzaile mota bat gartzeko (propietateak, gehigarriak, saiakuntzak, lan-baldintzak, fabrikatzaile nagusiak).	Lubrifikatzaileei, horien propietateei eta lubrifikatzaile mota bakoitzaren aplikazioei buruzko kontzeptuak finkatzeko, eta fabrikatzaile nagusiak ezagutzeko.	
J4-E1. Taldeko azalpena, lubrifikatzaileei buruzkoa.		3,5 h		X	Lanaren emaitzak gainerako ikaskideei azalduko dizkiete.	Ahozko adierazpena eta azalpen-gaitasuna garatzeko.	Arbela. Proiektagailua.
J5. Azalpena, babesari eta ingurumenari buruzkoa, lubrifikatzaileei lotuta.		1,5 h	X		Irakasleak lubrifikatzaileen erabilerari eta birziklatzeari buruzko araudia azalduko du.	Erabilitako lubrifikatzaileak nola tratatu jakiteko. Ingurumena zaindu eta babestearen inguruan kontzientziatzeko.	Arbela. Proiektagailua.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> J2.1 jardueran laguntzeko, lubrifikatzaileen erakusgaiak erabil daitezke (motorretarako olioak, ebaketarako olioak, koipea...), biskositate- eta kolore-desberdintasunak nabarmentzeko. 							



3. unitate didaktikoa: FABRIKAZIO MEKANIKOAN ERABILTZEN DIREN METAL ETA ALEAZIO NAGUSIAK AZTERTZEA

Iraupena: 36 ordu

IE3: Produktuak fabrikatzeko materialak hautatzen ditu, horien ezaugarriak diseinatutako produktuen eskakizun funtzional, tekniko, ekonomiko eta estetikoekin lotu ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Materialen propietate fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren elementuen, tresnen eta mekanismoen beharrekin lotzea.
2. Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan gehien erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea.
3. Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialen kodetzea interpretatzea.
4. Fabrikazio-prozesuek materialaren propietate-aldaketan duten eragina identifikatzea.
5. Materialaren propietateek fabrikazio mekanikoko prozesuen garapenean duten eragina identifikatzea.
6. Tratamendu termikoek eta termokimikoek elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialetan dituzten ondorioak deskribatzea.
7. Diseinutik abiatuta, tratamendu termikoek eta termokimikoek elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan sorrarazten dituzten anomaliak saihesteko era deskribatzea.
8. Erabilitako materialetan babesaren edo lubrifikazioaren beharra identifikatzea, horien bateragarritasun fisikoa edo kimikoa kontuan izanda.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Produktuak fabrikatzeko material multzoak identifikatzea, eta propietate garrantzitsuenak eta aplikazio ohikoenak zehaztea. • Fabrikazio mekaniko bidez lortutako osagaietan erabiltzen diren materialen propietate fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak, eta horien arteko lotura zehaztu eta deskribatzea. • Merkataritzako taulak eta katalogoak erabiltzea. • Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialen kodetzea interpretatzea. • Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan gehien erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea. • Materialen fabrikazio-prozesuaren, egituraren eta propietate mekanikoen arteko lotura aztertzea. Fabrikazio-prozesuan propietateek duten eragina identifikatzea. • Tratamendu termikoak eta gainazalekoak, eta horiek materialetan duten eragina identifikatu eta deskribatzea. • Diseinutik abiatuta, tratamendu termikoek eta termokimikoek elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan sorrarazten dituzten anomaliak saihesteko kontuan izan beharreko irizpideak identifikatzea. • Elementuak, tresnak eta mekanismoak diseinatzeko materialak eta tratamenduak hautatzea (mekanizagarritasuna, kostua...). • Materialen bateragarritasun fisiko edo kimikoaren arabera babes motak zehaztea. • Materialen erabilerarekin lotuta, gizartearen ingurumen- eta kultura-ondarea zaindu eta babesteko balio etikoak zehaztea. 			X		
				X		
				X		
				X		
				X		
				X		
				X		
				X		



KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Materialen sailkapena. Propietateak eta aplikazioak. • Fabrikazio mekaniko bidez lortutako osagaietan erabiltzen diren materialen propietate fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak. Definizioa eta horien arteko lotura. • Merkataritzako taulak eta katalogoak. Merkataritzako propietateak eta formak. • Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialen kodetze normalizatua. • Fabrikazio mekanikoko elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan gehien erabiltzen diren material metalikoak, zeramikoak, polimerikoak eta konposatuak. • Fabrikazioko egituraren/prozesuaren eta propietateen arteko lotura. Fabrikazio-prozesuan propietateek duten eragina. • Fabrikazioko egituraren/prozesuaren eta materialen propietateen arteko lotura, eta horien eragina fabrikazio-prozesuan. • Fabrikazio mekaniko bidez lortutako osagaietan erabiltzen diren tratamendu termikoak eta termokimikoak. TTT kurbak. • Tratamendu termikoak eta termokimikoak elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan sorrarazten dituzten errore eta anomalia ohikoenak. • Mekanizagarritasunaren, kostuaren eta bestelako irizpideen eragina elementuak, tresnak eta mekanismoak diseinatzeko materialak eta tratamenduak hautatzean. Hautatzeko irizpideak. • Materialen arteko bateragarritasun fisikoa edo kimikoa. 				X	X	X	X	X	X	X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen ingurumen- eta kultura-ondarea zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikoa hartzea. • Eskakizun tekniko, funtzional, ekonomiko eta estetikoak, eta horiek hautatu beharreko material eta tratamendu motarekin duten loturari buruzko ikuspegi orokorra izateko interesa. 				X	X	X	X	X	X	
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK			
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den				
			Ir.	Ik.							
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da.	Moduluaren gainerako UDekiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Ikasleak alde aurretik jarrera egokia har dezan garatu beharreko lan motarekiko.	OCDa.				
J1. Azalpena, metalen egiturari buruzkoa.	1, 2	1 h	X	X	Irakasleak metalezko materialen ezaugarriak eta berezitasunak azalduko	Materialak euren propietate fisikoen eta kimikoen arabera bereizten	Arbela, proiektagailua.				



					ditu. Era berean, bestelako materialetatik bereizten dituzten propietateak azalduko ditu. Metal nagusien eta horien aleazioen garrantzia nabarmenduko da.	ikasteko, eta aplikazio mekanikoetan haiek erabiltzearen garrantzia ezagutzeko.	
J3. Azalpena, metalak lortu eta fabrikatzeko prozesuei, eta horiek azken propietateetan duten eraginari buruzkoa.	1, 4	3 h	X		Irakasleak metalak eta horien aleazioak lortzeko erabiltzen diren prozesuak azalduko ditu, eta ezaugarri jakin batzuetako produktuak lortzeko zein transformazioen eraginpean jartzen diren ere azalduko du. Prozesu horietan lortzen diren propietateen arteko desberdintasunak deskribatuko ditu. Sektore metalurgikoan lortzen diren produktu nagusiak azalduko ditu.	Metalak lortzeko era eta prozesuak azken propietateetan duen eragina ezagutzeko.	Arbela Proiektagailua. Metalak lortzeko prozesuari buruzko irudiak eta filmak.
J4. Azalpena, materialen saiakuntzei buruzkoa.	5,6	3 h	X		Irakasleak materialen propietate mekanikoak azalduko ditu eta propietate horiek neurtzeko dauden saiakuntza normalizatuak aztertuko ditu.	Materialen propietate mekanikoak ezagutzeko, eta saiakuntzetan erabiltzen diren unitateak eta neurriak ikasteko.	Arbela. Proiektagailua. Bisita saiakuntzen laborategira.
J4.1-E1. Erakustaldia, materialen saiakuntzei buruzkoa.		2 h	X	X	Ahal dela betiere, irakasleak azalduko dituzten saiakuntzeekin lotutako praktikak egingo ditu, eta ikasleak gidatuko ditu saiakuntza horiek egiten.		
J5. Azalpena, altzairuari buruzkoa.	1,2,3,4	3 h	X		Metal-industria mekanikoan aleazio garrantzitsua denez, irakasleak aleazio horren ezaugarriak eta propietateak nabarmenduko ditu. Altzairuetan gehien erabiltzen diren	Gehien erabiltzen den aleazioaren aldakortasuna ezagutu eta horri buruz ikasteko. Altzairuaren aleazioak	Arbela. Proiektagailua. Egitura metalografikoaren irudiak. Altzairua lortzeko prozesuei buruzko filmak.



J5.1-E2. Banakako edo taldeko lan bat egitea, metal-industria mekanikoan erabiltzen diren altzairu nagusiei buruzkoa (mekanizagarritasuna errazeko altzairuak, erremintetarako altzairuak, hotzean deformatzeko altzairuak...).	1,2,3,4	0 h		X	<p>sailkapenak azalduko ditu. Era berean, aleazio nagusien propietateak deskribatuko ditu eta altzairu-aleatzaile nagusiekin lotuko ditu.</p> <p>Katalogoetan eta Interneten oinarrituta, aplikazio bakoitzerako altzairuak lortzen direneko forma komertzialak azalduko ditu.</p> <p>Apunteak, bibliografia eta Internet erabilita, ikasleek zorrotz, xehetasunez eta adierazitako sakontasunez garatuko dute esleitutako gaia.</p>	<p>nomenklaturaren arabera antzemateko.</p> <p>Aleazio nagusien propietateak ezagutzeko eta dagozkien aplikazioekin lotzeko.</p> <p>Merkataritza-produktuen izenak ezagutzeko.</p> <p>Informazioa bilatzeko eta txostenak prestatzeko ahalegina indartzeko.</p>	
J5.2. Aurreko lanen emaitza bateratzea.		3 h	X	X	Ikasle bakoitzak, irakaslearen laguntzarekin, bere lanaren emaitzak azalduko ditu.	Altzairuen ezagutzari eta aleatzaileen eraginari buruzko ezagutza hobetzeko. Ahozko azalpena finkatzeko.	Arbela. Proiektagailua.
J6. Azalpena, burdinurtuei buruzkoa.	1,2,3,4	3 h	X		Irakasleak aleazio horien ezaugarriak eta propietateak azalduko ditu, bai eta beraiek lortzeko prozesuak eta aplikazio nagusiak ere.	Bestelako burdin aleazioak, eta, haien ezaugarrien ondorioz, dituzten propietateak eta aplikazioak ezagutzeko.	Arbela. Proiektagailua. Egitura metalografikoen irudiak.
J7. Azalpena eta analisia, tratamendu termikoei (TT) buruzkoak.	4, 6, 7	4 h	X		Irakasleak egiten diren TTak deskribatuko ditu, eta aleazioen propietateak aldatzeko kontuan hartu beharreko eskakizunak eta baldintzak azalduko ditu.	Temperatura-aldaketen bidez aleazioen propietateak aldatzen direla ulertzeko. Temperatura-aldaketen ondorioz metaletan izaten diren egitura-	Arbela. Proiektagailua. Egitura metalografikoen irudiak.



J7.1. Azalpena, erreminten estaldurei buruzkoa.		1 h	X		Propietate mekanikoak aldatzeko, metal-gainazalak estaltzeko dauden prozedurak deskribatuko ditu.	aldaketak ezagutzeko. Hainbat aleazioen TTT kurbak ulertu eta horiek interpretatzen jakiteko. Gainazalen propietate mekanikoak aldatzeko eta haiek korrosioaren aurka babesteko prozedurak ezagutzeko.	
J8. Azalpena, korrosioari buruzkoa.	8	2 h	X		Irakasleak korrosioaren ezaugarriak eta hura eragozteko modua azalduko ditu.	Metalen korrosioa zein baldintzatan sortzen den eta hura saihesteko zein modu dagoen jakiteko.	Proiektagailua. Irudiak.
J9. Azalpena, aleazio arinei buruzkoa.	Guztiak	4 h	X		Irakasleak aluminiozko, titaniozko eta magnesiozko aleazio nagusien propietateak, ezaugarriak eta nomenklatura azalduko ditu.	Aleazio arin nagusiak ezagutzeko, eta beraien artean eta bestelako metal-aleazioetatik bereizteko. Ezaugarrien arabera aplikazioak ezagutzeko. Industrian duten garrantzia ulertzeko.	Arbela. Proiektagailua. Egitura metalografikoen irudiak. Hainbat aleazioen laginak.
J10. Azalpena, metal-industria mekanikoan erabiltzen diren bestelako aleazioei buruzkoa.	Guztiak	3 h	X		Jarduera honetan, irakasleak industrian ohikoak diren bestelako aleazioen (letoa, brontzea, kupronikelak...) ezaugarriak eta propietateak azalduko ditu.	Bestelako aleazioak eta horien aplikazio nagusiak ezagutzeko.	Arbela. Proiektagailua. Egitura metalografikoen irudiak. Hainbat aleazioen laginak.
J11. Azalpena, erremintetarako materialei buruzkoa.	2, 3	2 h	X		Jarduera honetan, irakasleak ebaketa-erremintak fabrikatzeko erabiltzen diren materialen eta aleazioen ezaugarriak deskribatuko ditu.	Mekanizazio-prozesurako berariazko aleazioak eta materialak horien propietateekin eta lan-baldintzekin lotzeko.	Hortzak, plakatxoak, barautsak, fresak...
E3. Berariazko ebaluazio-jarduera.	Guztiak	1,5 h	X	X	Proba praktikoa baten bitartez, irakasteko eta ikasteko prozesuan erdietsi diren lorpenak ebaluatu nahi dira.	Ikasteko prozesua ebaluatzeko.	Proba praktikoa.



OHARRAK

- Metalak fabrikatzeko prozesua ezagutu eta ulertzeko, komenigarria izan daiteke aluminioaren edo kobrearen sektore siderurgikoko enpresaren bat bisitatzea. Enpresa horietan, laborategi kimikoa eta metalurgikoa bisitatuko da. Bertan, ikasleek aleazio bakoitzarekin egiten diren saiakuntzak ikusiko dituzte.
- *Fabrikazio mekanikoko teknikak 7*. moduluan, irakasleak J11 jarduerari buruzko azalpenak zabalduko ditu.



4. unitate didaktikoa: FABRIKAZIO MEKANIKOAN GEHIEN ERABILTZEN DIREN POLIMEROAK ETA MATERIAL KONPOSATUAK AZTERTZEA

Iraupena: 9 ordu

IE3: Produktuak fabrikatzeko materialak hautatzen ditu, horien ezaugarriak diseinatutako produktuen eskakizun funtzional, tekniko, ekonomiko eta estetikoekin lotu ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Materialen propietate fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren elementuen, tresnen eta mekanismoen beharrekin lotzea.
2. Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan gehien erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea.
3. Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialen kodetzea interpretatzea.
4. Fabrikazio-prozesuek materialaren propietate-aldaketan duten eragina identifikatzea.
5. Materialaren propietateek fabrikazio mekanikoko prozesuen garapenean duten eragina identifikatzea.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Produktuak fabrikatzeko material multzoak identifikatzea, eta propietate garrantzitsuenak eta aplikazio ohikoenak zehaztea. • Fabrikazio mekaniko bidez lortutako osagaietan erabiltzen diren materialen propietate fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak, eta horien arteko lotura zehaztu eta deskribatzea. • Merkataritzako taulak eta katalogoak erabiltzea. • Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialen kodetzea interpretatzea. • Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan gehien erabiltzen diren merkataritza-elementuak identifikatzea. • Materialen bateragarritasun fisiko edo kimikoaren arabera babes motak zehaztea. • Materialen erabilerarekin lotuta, gizartearen ingurumen- eta kultura-ondarea zaindu eta babesteko balio etikoak zehaztea. 			X X X X X X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Fabrikazio mekaniko bidez lortutako osagaietan erabiltzen diren materialen propietate fisikoak, kimikoak, mekanikoak eta teknologikoak. Definizioa eta horien arteko lotura. • Merkataritzako taulak eta katalogoak. Merkataritzako propietateak eta formak. • Elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan erabiltzen diren materialen kodetze normalizatuak. • Fabrikazio mekanikoko elementuetan, tresnetan eta mekanismoetan gehien erabiltzen diren material metalikoak, zeramikoak, polimerikoak eta konposatuak. • Materialen arteko bateragarritasun fisikoa edo kimikoa. 			X X X X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen ingurumen- eta kultura-ondarea zaindu eta babesteko balioetako konpromiso etikoa hartzea. • Eskakizun tekniko, funtzional, ekonomiko eta estetikoek, eta horiek hautatu beharreko material eta tratamendu motarekin duten loturari buruzko ikuspegi orokorra izateko interesa. 			X X		



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da.	Moduluaren gainerako UDe kiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Ikasleak aldeztetik jarrera egokia hartzeko, garatu beharreko lan motarekiko.	OCDa.
J1. Azalpena, polimeroen lorpenari, sailkapenari eta propietate nagusiei buruzkoa.	1	1 h	X		Irakasleak polimeroak lortzeko prozedurak azalduko ditu.	Lortzen diren egiturak eta horiek dituzten propietateekiko lotura ezagutzeko. Egiturak materialaren propietateekin lotzeko. Polimeroen inguruko nomenklatura ikasteko.	Arbela. Proiektagailua.
J2. Azalpena, fabrikazio mekanikoan gehien erabiltzen diren termoplastikoei, termoegonkorrei eta kautxuei buruzkoa. J2.1. Azalpena, polimeroetarako gehigarriei buruzkoa.	2, 3	2 h 1 h	X		Irakasleak mekanikaren esparruan erabiltzen diren termoplastikoen, termoegonkorren eta kautxuen propietateak azalduko ditu. Era berean, material horien propietateak hobetzeko erabiltzen diren materialak eta metodoak azalduko ditu.	Polimeroen oinarriko propietateak ikasteko. Polimeroen propietateak nola aldatzen diren jakiteko.	Arbela. Proiektagailua. Hainbat polimeroen laginak – poliamidak, ABS, polikarbonatoak, PET...-.
J3. Azalpena, polimeroen prozesatuari buruzkoa.	4, 5	1,5 h	X		Irakasleak termoplastikoak eta termoegonkorrak prozesatzeko erabiltzen diren metodoak azalduko ditu.	Elementuak lortzeko metodoak ezagutzeko.	Arbela. Proiektagailua. Polimeroak prozesatzeari buruzko bideoak edo filmak.
J4. Azalpena, material konposatuei eta horiek industrian duten erabilerari buruzkoa.	4, 5	2 h	X		Irakasleak material konposatuak lortzeko era, eta horretarako erabiltzen diren matrizeak eta zuntzak azalduko ditu. Beste material batzuen aldean	Industria aeronautikoan eta autoziokan gero eta gehiago erabiltzen diren materialak ezagutzeko.	Arbela. Proiektagailua. Konpositeak prozesatzeari buruzko bideoak edo filmak.



					dituzten onurak azalduko ditu.	Material berrien propietateak ezagutzeko. Material konposatuak egiteko era ezagutzeko. Material horien onurak eta eragozpenak ezagutzeko.	Hainbat material konposaturen, zuntzen eta erretxinaren laginak –beira-zuntza, karbono-zuntza, erretxinak...–.
E1. Berariazko ebaluazio-jarduera.	1, 2, 3.	1 h	X	X	Galdera teorikoak ebazteko banakako proba baten bitartez, irakasteko eta ikasteko prozesuan erdietsi diren lorpenak ebaluatu nahi dira.	Ikasteko prozesua ebaluatzeko.	Proba praktikoa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"><i>Produktu polimerikoetarako moldeen diseinua</i> 5. lanbide-moduluan, unitate didaktiko honetan ikusitakoaren azalpen zabalagoa eta zehatzagoa egingo da. Hemen, polimeroek fabrikazio mekanikoan erabiltzeko dituzten propietateak nabarmentzea komeni da.							



5. unitate didaktikoa: TRAKZIOARI, KONPRESIOARI ETA EBAKIDURARI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK		Iraupena: 24 ordu				
<p><i>IE4: Zehaztutako elementuen, tresnen eta mekanismoen osagaien dimentsioak kalkulatzeko, haien eskakizunak aztertu ondoren.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Elementuak kalkulatzeko erabili beharreko formula eta unitate egokiak hautatzea, haien ezaugarrien arabera. 2. Transmisio-elementuen gainean diharduten esfortzuen balioa lortzea, transmititu beharreko nekeen arabera (gehieneko abiadura, eta gehiengo potentzia eta esfortzua, besteak beste). 						
EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
